

## Azazetako zeharbidean urbanizazio lanak eta trafikoa baretzeko lanak amaitu ditu Foru Aldundiak

Espaloi berriak eta sakagailudun semaforoa duen zebra bidea ditu

Lurralde oreka sustatzeko 2019an onetsitako Aparteko Inbertsioen Foru Planaren osagai dira obrak

**Gasteiz, 2019ko azaroaren 27a.-** Arabako Foru Aldundiak amaiera eman die A-132 errepideko zeharbidearen urbanizazio lanei eta trafikoa baretzeko lanei Azazetako tartean, bide segurtasuna hobetzeko 258.109 euroko inbertsioa egin ostean. Proiektu horrek espaloi berriak eta semaforoa duen zebra bide bat hartzen ditu, eta lurraldearen oreka sustatzeko aparteko inbertsioen foru planaren barruan dago.

Javier Hurtado Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua eta Irma Basterra Lurralde Oreka Saileko foru diputatua zeharbidean izan dira gaur, obren emaitza bertatik bertara ezagutzeko. Hurtadok eta Basterrak tartearen hainbat puntu zeharkatu dituzte, Anartz Gorrotxategi Maeztuko alkate eta Arabako Mendialdeko Kuadrillako presidentearekin, Raúl Rituerto Azazetako Administrazio Batzordeko presidentearekin eta batzarkide taldeetako ordezkariekin batera.

Hurtadok azpimarratu duenez, zeharbide horretan trafikoa baretzeko hainbat elementu sartu dira, ibilgailuen igarotze abiadura murrizteko, oinezkoentzako ibilbide seguruak espaloi bidez eta semaforoz araututako zebra bide bat, eta erdigunerako sarbide hobeak. "Gidariantzat eta, batez ere, oinezkoentzat, bide segurtasuna hobetzea da helburua", adierazi du.

Bestalde, Basterra diputatuak puntu beltz horren konponbidea ospatu du. Izan ere, "Azazetako bizilagunen aldarrikapen historikoa zen". "Bide-segurtasunak

eta trafikoa baretzeak egunerokoa errazten du eta herrientzako bizi-kalitatea ematen du, eta hori lurraldeen oreka ere bada", azpimarratu du

Proiektu horri esker, Azazeta zeharbidean espaloiak, autobus geltoki gisa erabiltzeko bi gune eta garbitokiaren parean herriko sarbide erosoagoak egongo dira. Jarduketa horien helburua da oinezkoei ibilbide seguruak eskaintzea eta egunero zeharbide horretan dabiltzan 3.500 gidariei ikusaraztea eremu urbanizatu bat zeharkatzen dutela eta abiadura 50 km/h-ko mugara egokitu behar dutela.

### **Zebra bidea**

Esku hartzea 253 metro luze den tarte batean egin da, Azazetako herrigunea osorik zeharkatzen duen N-132 errepidean, eta 6,5 metroko galtzada bat egiteaz gain (3,25 metroko 2 errei) -metro erdiko erdibitzaile bat abiadura jaistekoa duena (galtzadaren gainean pintatutako erdibitzailea)- 1 metroko bazterbideak ere eraiki dira. Halaber, espaloi berriak egin dira eta, erabilgarri dagoen lekuaren arabera, 2 metroko zabalerakoak.

Jardunetatik beste bat izan da bi gune sortzea, norabide bakoitzean bat, autobus geraleku gisa erabiltzeko. Gune horiek guztira ia 40 metro luze dira, eta sarrera eta irteerako falkak dituzte.

Proiektua gauzatuta, herriko sarbidea ere hobetu ahal izan da garbitegiaren parean, eta ibilgailuentzat jarritako espazioa murriztuko da, albo espaloiak eraikiz eta oinezkoentzako gune bat sortuz, zeina bi bankuz eta zuhaitz batez hornitu baita. Azkenik, eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, sakagailua duen semaforo bat jarri da oinezkoen pasabide berriaren ondoan, hiriguneko guneen artean segurtasunez gurutzatzeko.